Donibane Lohitzun'etik
1951 garren Epailak 20

Lapitz jaun apezari

Jaun ta adiskide: Ez dut uste, Donosti'ko Yon Etxaide ikustez ezagutzen duzunik; bainan bai entzutez naski: «Amaya» eta «Alos-Torrea» liburu herriaren egilea da. Bertze liburu

«Ikusgarri-goingeingoketa»rako antzerki eder bat gertatzen. Emengo mutiko gazte-gazte batena da antzerkia, ta gauza berri ta ederra nere ustez. Agur eta milaka goraintzi

J. Mongón-Olorón'eko

bat ari da orain gertatzen; eta onekin batean igortzen dizkizut artako bear lituzken xeetasunak. Igorriko al dizkiozu zuk, otoi, xeetasun oriek Etxaide'ri? Orra, gutun onekin batean ere, Etxaide'ren zuzen bideak. Nik ez ditut etxean ez «Euskalduna» ta ez «Euskaldun Ona». Orregaitik nator, Etxaide'ren izenean zure laguntzaren eske.

Ez dugu elkar ikus, aspaldi ontan. Nola zabiltz osasunez? Donibane'ko aurrek poliki lanean ari euskera ikasten eta lantzen eskoletan. Badira euskeraz amabi eskola-emaile. «Begirale»koak ere gogotik lanean ari.

Pierre Lafitte apaiz yaunari

Donibane Lohitzun'tik

1947-10-24

Yaun ta adiskide: Ara emen ene olerki berria. Donapaleo'ko gazte bati, erantzunez, idatzia. Ez dakit "Herria"n agertzeko egoki iduritzuko ote zaizun. Baezpada, nik zuri igorri ta zuk, gero, nai duzuna egiten duzu.

Ta, nolanai, beti zure adiskide

ta menpeko

Monzon-Olaso'neko Telesforo